

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Kultura, kirol eta beste jardueren batzuen zerbitzuen eta jardueren prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala behin betiko onestea

Ez da erreklamaziorik aurkeztu ondoren aipatzen den ordenantza fiskalaren aldaketaren aurka.

Kultura, kirol eta beste jardueren batzuen zerbitzuen eta jardueren prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Horiek horrela, behin betiko onetsita geratzen da, eta osorik argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Iruña Oka, 2025eko abenduaren 16a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ

KULTURA, KIROL ETA BESTE JARDUEREN BATZUEN ZERBITZUEN ETA JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua

Udal honek, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauak xedatzen duenarekin, eranskinean ageri diren zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako eran, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerri osoan aplikatzen da.

3. artikulua

Arau honetako prezio publikoak zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

Arau honetako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

5. artikulua

Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak ezingo dira murriztu.

6. artikulua

Arau honetako zerbitzu edo udal jarduerak jaso ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek, nolana ere, arau honetan araututako prezio publikoak ordaintzearen baldintzapean eman direla ulertuko da, eta behin horiek luzatuta; prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua

Arau honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da. Hala ere, dagoeneko eman eta luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean sortzen da ordaindu beharra.

8. artikulua

Honela ordainduko dira prezio publiko horiek:

a) Emandako zerbitzuen edo egindako jardueren kasuan, zuzenean egin beharko da diru sarrera udal diru kutxan, zerbitzua jaso edo jarduera egin aurretik, eta bertan aipatzen den gutxieneko kopurua ordaindu beharko da.

b) Dirua aurretik ordaindu ezin den zerbitzuei eta jarduerari dagokienez, udalak faktura aurkezten duen unean.

c) Urte osoko zerbitzuei eta jarduerari dagokienez, prezio publikoen zerrendan sartu ondoren, urte naturalaren arabera.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazaizkio egotzi prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

11. artikulua

Ordenantza hau, eranskinarekin batera, indarrean jarriko da Iruña Okako Udalak behin betiko onetsi eta testu osoa ALHAOn argitaratzen denean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro eta gero.

Ordenantzaren eranskina

Zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza

I. epigrafea. Kultura jardueren zerbitzua

1.1. Musika irakaskuntza: udalak antolatu eta gizarte eta kultur etxean ematen diren musika ikastaro hauetan parte hartzeagatik: solfeoa, akordeoia, gitarra, trikitia eta panderoa, organoa, saxofoia, tronpeta. Banakako klaseak direnez, ordaindu beharreko kuota jasotzen den zerbitzuaren denboraren arabera izango da.

Musika irakaskuntza:

Musikaren hastapenak: 77,20 euro ikasturteko. Banakako eskolak: 227,90 euro/ikasturteko (musika tresna eta musika hizkuntza).

1.2. Euskara eskolak: 119,80 euro ikastaroko.

II. epigrafea. Kirol jardueren zerbitzua. Udalak antolatutako ikastaroak:

2. Gurpil gaineko irristaketa, haurrentzat: 19,80 euro/hiruhileko.

III. epigrafea. Ludoteka zerbitzua

3.1. Ludoteka:

a) saio 1: 16,90 euro/hiruhileko.

b) 2 saio: 22,50 euro/hiruhileko.

3.2. Ludokluba: 23,80 euro/hiruhileko.

3.3. Gazte kluba: doakoa.

IV. epigrafea. Hainbat jarduera

- 4.1. Eskulan tailerra: 38,60 euro/hiruhileko.
- 4.2. Eskuz sortzen ikasi tailerra: 14,50 euro/hiruhileko.
- 4.3. Antzerki tailerra: 28,40 euro/hiruhileko.
- 4.4. Euskal dantzak: doan.
- 4.5. Sevillanak, hastapena: 30,20 euro/hiruhileko.
- 4.6. Sevillanak, aurreratua: 45,30 euro/hiruhileko.
- 4.7. Flamenkoa, hastapena: 30,20 euro/hiruhileko.
- 4.8. Flamenkoa, aurreratua: 60,40 euro/hiruhileko.
- 4.9. Abesbatza: 29,20 euro/hiruhilekoa.
- 4.10. Josteko makinaz josten ikasteko ikastaroa: 22,70 euro/hiruhileko.
- 4.11. Batukada, haurrak: 49,00 euro/hiruhileko.
- 4.12. Batukada, helduak: 49,00 euro/hiruhileko.
- 4.13. Ehoziri lantegia: 17,00 euro/hiruhileko.
- 4.14. Runba: 45,30 euro/hiruhileko.

V. epigrafea. Udal udalekuak

Kuota kultura sailak finkatuko du adin taldeak, monitoreak eta udalekuak egiteko aldia kontuan hartuta.

VI. epigrafea. Beste jarduera batzuk

Kuota kultura sailak finkatuko du adin taldeak, monitoreak eta udalekuak egiteko aldia kontuan hartuta.

KULTUR JARDUEREN ARAUDIA

Ikastaroak kultura zerbitzuak ezarritako egutegiaren arabera egingo dira. Egutegia ikastaroaren hasieran emango zaie parte hartzaileei, eta jarduerak egiten diren ikasgeletako oholetan jarriko da.

Udalak eskubidea du ordutegiak eta programaren instalazioak aldatzeko, baita izen emate kopuruaren arabera jarduera bat bertan behera uzteko ere.

Jardueren deialdian, plaza kopurua eta jarduera martxan jartzeko behar den gutxieneko izen emate kopurua adieraziko dira. Halere, jardueraren batean gutxieneko izen emate kopurua betetzen ez bada, haren konplexutasunaren edo ezaugarri berezien ondorioz, udalak abian jarri edo ez baloratuko du, udalaren helburuen arabera.

Ezin dira inola ere egunak eta ordutegiak aldatu, nahiz eta jarduerak izaera berbera izan. Beraz, inor ezin da taldez aldatu, dagokion zerbitzuaren berariazko baimena jaso ezean.

Abian jartzen den jardueretakoren bat, ezaugarri bereziak edukitzeagatik, ezin bada sailkatu ordenantza honetako jardueren artean, udalak tasa berezi bat erabakiko du berariaz, jardueraren eskaintzarekin batera jakinaraziko dena.

Jarduerak egitean, hauek izango dira begiraleen erantzukizunak:

- Ikasleek udalaren gela eta materiala behar bezala erabiltzea.
- Asistentzia kontrolatzea eta gorabeheren berri ematea dagokion udal zerbitzuari.
- Saio bakoitza amaitzean eta tailerra amaitzean gela egoera onean uztea.

Jardueren eskaintzarekin batera, izena emateko epeak eta lekua adieraziko dira. Izen emateak, oro har, aurrez aurre edo telefonoz egingo dira, edo email bidez, kultura eta gizarte zerbitzuan edo web orriaren bidez, dagozkion arauen arabera.

Izen emate kopurua plaza kopurua baino handiagoa bada, zozketa bidez esleituko dira plazak.

Plazak zozketaren bidez esleitzen badira, udalerrian eta hitzarmena duten udalerrietan erroldatutako pertsonak izango dute lehentasuna; plaza guztiak zozketatuko dira, onartutako pertsonak eta erreserbakoen ordena finkatzeko. Izena ematen duen pertsona bakoitzak zenbaki bat jasoko du, izen emate hurrenkeraren arabera. Zozketaren bidez, izena eman duten pertsona guztien zerrendan hurrenkera zein zenbakitik aurrera antolatuko den erabakiko da. Horrela zehaztuko dira onartutakoak eta erreserba eta haren hurrenkera.

Ikastaroa hasitakoan plaza hutsak badaude, lehenik eta behin erreserban dauden pertsonak izango dute sartzeko eskubidea. Ikastaroan sartzen den hilabetetik aurrera kobratuko da kuota.

Kultura eta kirol jardueretara edo bestelakoetara sartzeko, egunean egon behar da erabil-tzaileek izena ematen duten jardueri dagozkien prezioen ordainketari dagokionez.

PREZIOAREN KUDEAKETA ETA ORDAINKETA

Tasak udalak kudeatuko ditu, banku helbideratze bidez, eta betiere jarduera hasi edo abian jarri aurretik.

- Musika eskolak 2 kuotatan kobratuko dira.
- Antzerki tailerra hilero kobratuko da.
- Gainerako jarduerak eta tailerrak hiru hilean behin kobratuko dira.

Jardueraren baja kultura zerbitzuari jakinarazi beharko zaio instantziaren bidez eta dagokion kuota kobratu aurretik egin beharko da beti.

correspondiente y deberá efectuarse siempre con anterioridad al período en que se efectúe el cobro de la cuota correspondiente.

Ordenantza hau 2026ko irailaren 1ean jarriko da indarrean.